


# Motorola

## MOTORAZR² V9aren

## erabiltzailearen eskuliburua

NOKIA

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

# HELLOMOTO

MOTO**RAZR2** V9 haririk gabeko 3G-ko mugikor berria aurkezten dizugu. Hona hemen telefonoaren errepaso azkarra.






**Ukipen-teklak**: kanpoko pantailan [irudiak], [musika] edo [bideoa] teklak sakatu ondoren, erabili ▲ ▼ pantaila-teklak, menuko elementuetan mugitzeko eta funtzio ugariko tekla atzera joateko. Testu-mezu bat, galdutako dei bat edo hitzordu baten gogorarazle bat edo alarma bat jasotzen baduzu, kanpoko pantailan ikono berezien teklak bistaratuko dira.

## Hasierako pantaila




1 Luze sakatu **pizteko tekla** segundo batzuez edo pantaila piztu arte.

2 Sakatu **erdiko tekla** (·●·) menu nagusia irekitzeko.

## Menua




3 Sakatu nabigazio-tekla **gora**, **behera**, **ezkerrera** edo **eskuinera** (·ȯ·) menuko funtzio bat markatzeko.

4 Sakatu **erdiko tekla** (·●·) hautatzeko.

Hasierako pantailako zuzeneko sarbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

Informazio gehiago izateko, ikus *Bizkor hasteko gida* edo ikus **www.hellomoto.com/support.**

**www.hellomoto.com**

Telefono mugikorraren funtzio batzuk operadorearen aukeren eta sare-konfigurazioaren araberakoak dira. Bestalde, baliteke operadoreak funtzio batzuk ez aktibatzea eta/edo operadorearen sarearen konfigurazioak nolabait horien funtzionaltasuna mugatzea. Erabilgarritasunari eta funtzionalitateari buruz gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure operadorearekin. Produktuaren funtzio, funtzionaltasun eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira argitaratzeko unerako. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBko Patenteen eta Marka Erregistratuen bulegoan daude erregistratuta. Gainerako produktu- eta zerbitzu-izenak haien jabeen marka komertzialak dira. Bluetooth marka komertzialak haien jabearenak dira eta Motorola, Inc.-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira AEBn eta beste herrialdeetan.

© Motorola, Inc. 2007.

**Kontuz:** Motorolak espresuki baimenik eman gabe telefono mugikorrean aldaketak eginez gero, erabiltzailea ekipoa erabiltzeko baimenik gabe geratuko da.

## Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohartarazpen legala

Gida honetan azaldutako Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei eskubide berezi batzuk eman dizkiete egile-eskubideek babestutako softwareari buruz; besteak beste, software-produktu horiek banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak. Horren arabera, egile-eskubideek babesten dituzten softwareak, Motorolaren produktuetan badaude, ezingo dira aldatu, banatu edo erreproduzitu, eta atzeranzko ingeniaritza ere ezingo zaie aplikatu legea kontuan hartuta. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzat –zuzenekoa edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzat edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotzat. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabilera esklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

# Edukia


**Menuen diagrama**** ... 7
**Segurtasunari buruzko informazioa** ... 9
**FCCren oharra** ... 15
**Erabilera eta zaintza** ... 16
**Europako legeak betetzea** ... 17
**Birziklatzeari buruzko informazioa** ... 19
**Aholkuak eta iradokizunak** ... 20
**Oinarrizko kontzeptuak** ... 22
- Eskuliburu honi buruz ... 22
- Pantaila ... 23
- Testua idaztea ... 26
- bolumena ... 30
- Nabigazio-tekla ... 30
- Funtzio ugariko tekla ... 30
- Ahots-komandoak ... 31
- Kanpoko pantaila ... 33
- Esku librekoaren bozgorailua ... 34
- Kodeak eta pasahitzak ... 34
- Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea ... 35

**Pertsonalizatzea** ... 36
- Ahotsa duen telefonoa ... 36
- Ordua eta data ... 36
- Pantailaren hondoa ... 37
- Pantaila-babesa ... 37
- Gaiak ... 38
- Pantailaren itxura ... 39
- Erantzuteko aukerak ... 40

**Deiak** ... 41
- Dei-alerta desaktibatzea ... 41
- Azken deiak ... 41
- Berriro markatzea ... 44
- Dei-identifikatzailea ... 44
- Larrialdi-deiak ... 45
- Ahots-postontzia ... 45
- Bideo-deia ... 46

**Konexioak** ... 48
- Haririk gabeko Bluetooth® ... 48
- Kable bidezko konexioak ... 54
- Telefonoko softwarea eguneratzea ... 56

**Posta elektronikoa eta mezuak** ..... 57
Testu-mezuak ..... 57
Blogak ..... 59
**Beste zenbait funtzio** ..... 61
Dei-funtzio aurreratuak ..... 61
Telefono-aurkibidea ..... 66
Mezuak ..... 71
pertsonalizatzea ..... 74
Deien iraupena eta kostua ..... 75
Esku libreko funtzioa ..... 76
Datu-deiak ..... 77
Sarea ..... 79
Antolatzaile pertsonala ..... 79
Segurtasuna ..... 83
Aisia eta jokoak ..... 83
**SAR datuak** ..... 86
**OMSren informazioa** ..... 88
**Pribatutasuna eta datuen babesa** ..... 89
**Segurtasuna gidatzeko garaian** ..... 91
**Aurkibidea** ..... 93

# Menuen diagrama**

## Menua

**Telefono-liburua**

**Azken deiak**

- (sakatu [*] edo [#] tekla dei-zerrendan batetik bestera mugitzeko).

**Mezuak**

- Sortu mezua
- Mezuen sarr. erretilua
- Irteera erretilua
- Ahots bidezko posta
- Txantiloiak
- Zirriborroak
- Posta elektronikoa
- Mezu elektronikoa
- Informazio zerbitz.
- Arakatzaile mezuak

**Tresnak**

- USIM*
- Kalkulagailua
- Egutegia
- WebShare
- Markatze zerbitzuak
  - Markatze mugatua *
  - Zerbitzu-markatzea *
  - Markatze bizkorra
- Mundu erlojua

**Joko eta aplikazioak**

**Web sarbidea**

- Arakatzailea
- Laster markak
- Historia
- Jo orrira
- Arakatzaile konfigur.
- Web saioak
- Gordetako orriak

**Bideokamera**

**Iratzargailua**

**Kamera**

**Multimedia**

- Media bilatzailea
  - Musika
  - Irudiak
  - Bideoak
  - Ahots oharrak
  - Abisu seinaleak
  - Hondoko irudiak
- Gaiak
- Ahots grabazioa
- Oharrak

**Konexioa**

- Bluetooth® lotura
- USB ezarpenak
- MOTOSYNC™*

**Ezarpenak**

- (ikus hurrengo orrialdea)

* Aukerako funtzioak.

** Diseinu hau menu estandar nagusiarena da. **Litekeena da zure telefonoko menua berdin-berdina ez izatea.**

**Hasierako pantailako zuzeneko sarbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, *ikus Bizkor hasteko gida*.**

# Konfigurazioen menua

**Pertsonalizatu**

- Hasierako pantaila
- Menu nagusia
- Ahots bidezko markaketa konfig.
- Azala
- Agurra
- Horma papera
- Pantaila babesa
- Soinuen konfig.

**Abisu seinale estiloak**

- Estiloa
- *(mota)* Xehetasunak

**Dei desbideratzea** *

- Ahots-deiak
- Bideo deiak
- Ezeztatu guztiak
- Desbiderat. egoera
- Sakatu desbideratutako zenbakira deitzeko

**Dei jasoen konfigur.**

- Data eta ordua *
- Dei jasoen temporiz.
- Dei-kostuaren konf. *
- Nire dei identif.
- Erantzun-aukerak
- Deia zain
- Alerta mezua

**Hasierako konfigur.**

- Ordua eta data
- Markatze lasterra
- Auto. mark. berriz
- Bistaratze muga
- Atzeko argia
- Argiak kargatzen
- Korritzea
- Testuaren markatzea
- Hizkuntza
- Bateria aurreztea
- Argitasuna
- DTMF
- Berrezartze orok.
- Garbitze orokorra

**Softwarea eguneratzea**

- Softwarea instalatzea
- Eguneratzeak bilatzea

**Telefono-egoera**

- Nire tel. zk.ak.
- Kredituari buruzko informazioa/ Erabilgarri dagoen kreditua *
- Linea aktibo*
- Bateria-neurgailua
- Erabiltzaile kontuak
- Deskargatu kokalekua
- Biltegi gailuak
- Bestl. informazioa

**Entzungailua**

- Automat. erantzun
- Seinale aukerak
- Ahots markatzea

**Autoko ezarpemak**

- Automat. erantzun
- Autom. esku libr.
- Itzaltz. atzerapena
- Kargagailu-denbora

**Hegaldi modua**

- Hegaldi modua
- Galdetu piztean

**Sarea**

- Sare berria
- Sare-konfigurazioa
- Erabilgarri diren sareak
- Nire sareen zerrenda *
- Zerbitzu-tonua
- Dei ezeztat. tonua

**Segurtasuna**

- Telefonoa blokeatu
- Kanpoko tekla blokeatz.
- Blokeatu aplikaz.
- Ezkuta sarrera pribatuak
- Markatze mugatua *
- Murriztu deiak *
- Deiak debekatzea *
- PINa eskatzea
- Pasahitz berriak
- Ziurtagiri kudeaketa *

**Java® ezarpenak**

- Java aplikaz. Kargatz.
- Java sistema
- Ezaba aplikazio guztiak
- Bibrazio aplikazioa
- Bolumen aplikazioa

* Aukerako funtzioak.

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

**Atal honek informazio garrantzitsua du zure telefono mugikorra modu seguruan eta eraginkorrean erabiltzeari buruz. Irakurri informazio hau zure telefono mugikorra erabili aurretik.[1]**

## Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. Konektatuta dagonean ("ON"), IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorraren bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du.

Motorola telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

1. Dokumentu honetako informazioak 2007ko maiatzaren 1era arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen segurtasunari buruzko informazio orokorra ordezten du.

## Funtzionamenduari buruzko neurriak

Zure telefono mugikorrak errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, jarraitu beti jarraibide eta neurri hauei.

### Kanpoko antena zaintzea

Zure telefonoak kanpoko antena badu, erabili Motorolak emandako antena edo homologatutako beste antena bat bakarrik. Baimendu gabeko antenek, aldaketek edo erantsiek telefonoan kalteak eragin ditzakete eta/edo herrialde bakoitzean ezarritako legeak urra daitezke.

EZ eutsi kanpoko antenari telefonoa ERABILTZEN ari zarenean. Kanpoko antenari eusteak deiaren kalitatean eragin dezake, eta telefonoak behar baino potentzia-maila handiagoan funtzionatzea eragin dezake.

### Produktuaren funtzionamendua

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

Mugikorra soinean badaramazu, jar ezazu beti Motorolak baimendutako klip, euskarri, pintza, zorro edo arnesen batean. Motorolak saldutako edo baimendutako osagarririk erabiltzen ez baduzu edo gailu mugikorra lokarri batekin lepotik zintzilikatzen baduzu, eduki itzazu gailua eta antena gorputzetik 2,5 cm-ra, transmititzen ari direnean.

Telefonoaren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra.

Motorolak eman edo homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak eman edo homologatutako osagarrien zerrenda bat topa dezakezu **www.motorola.com** web orrian.

# IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

Ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Kasu batzuetan, zure telefono mugikorrak interferentziak sor ditzake beste gailu batzuekin.

## Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu:

1. Ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar,
2. Jasotako interferentziak onartu behar ditu, baita nahi ez diren operazioak eragin ditzaketenak ere.

## Interferentzia-arazoak saihesteko, jarraitu urrats hauei

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak dauden lekuetan.

Hegazkinetan, itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun.

# Gailu medikoak

Irakurri eta kontuan hartu gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak. Gailu mugikorra gailu medikuarekin erabiltzeari buruzko zalantzarik baduzu, galdetu osasun-zerbitzuen hornitzaileari.

Gailu medikoren bat ezarrita baduzu, adibidez, taupada-markagailu bat edo desfibriladore bat, galdetu medikuari mugikorra erabiltzen hasi aurretik.

Gailu medikoak ezarrita dituzten pertsonek ohar hauek eduki behar dituzte kontuan:

- Telefonoa piztuta dagoenean (ON), gailu medikuetatik 20 zentimetrora baino gehiagora eduki behar dute BETI.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Mugikorra erabili behar dute gailu medikoa dagoen aldearen aurkako aldean, interferentziak ahalik eta gehien gutxitzeko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute, arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari direla susmatzen badute.

# Gidatzeko garaian kontuan hartu beharrekoak

Irakurri gidatzen ari zarela mugikorrak eta horien osagarriak erabiltzeari buruzko herrialdeko legeak eta arauak. Bete itzazu beti. Gidatu bitartean telefono mugikorra erabiltzen duzunean, gogoan izan hau:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean. Telefono mugikorrak erabiltzeak arreta galaraz diezazuke. Ez erabili mugikorra, gidatzen kontzentratu ezin bazara.
- Erabilgarri badago, erabili esku libreko funtzioa.
- Aldendu errepidetik eta gelditu ibilgailua dei bat egin edo jaso aurretik, egoerak hala eskatzen badu.
- Ez jarri telefono mugikorra airbaga irekitzen den lekuan.

Gidatzen ari zarela arduraz erabiltzeko jarraibideak ikus ditzakezu eskuliburu honen “Gidatzen ari zarela arduraz erabiltzea” atalean eta Motorolaren web gunean: **www. motorola.com/callsmart.**

**Oharra:** Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzen baduzu, arreta galaraz dezakezu. Arretaz gidatu ezin baduzu, amaitu deia. Bestalde, haririk gabeko gailuak eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

# Erabilerari buruzko oharrak

Gune publikoetan, egin kasu gailu mugikorrak erabiltzeari buruzko seinaleei.

# Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Lehergaiak egon daitezkeen inguruneak seinaleztatuak egon ohi dira, baina ez beti, eta barnean hartzen dituzte erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegiratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola, erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak.

Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik. Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Eremu horietan txinpartak sor daitezke, eta, horien ondorioz, leherketaren bat edo sua gerta daiteke.

# Irudi-testuak

Bateriak, kargagailuak edo telefono mugikorrak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du. |
|  | Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar. |

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Beharbada, bateria edo telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko. |
|  | Bateria edo telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar. |
|   | Zure telefono mugikorrak litio-ioizko bateria du. |
|  | Bateria, kargagailua eta telefono mugikorra ez daitezela busti. |
|  | Entzumenari kalte egin diezaioke musika edo bestelako soinuak entzungailuekin oso ozen entzuteak. |

## Bateriak eta kargagailuak

**Kontuz: Egokiak ez diren bateriak erabiltzeak suteak, leherketak, ihesak edo bestelako arriskuak eragin ditzake. Informazio gehiago behar izanez gero, ikus erabiltzailearen eskuliburu honetako “Bateria erabiltzea eta haren segurtasuna” atala.**

# Itotzeko arriskua

Telefono mugikorrak edo haren osagarriak pieza desmuntagarriak izan ditzakete, eta horiekin ito egin daitezke haur txikiak. Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

# Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu tekniko gaitu batean beira aldatu arte.

# Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsonei ere gertatzea.

Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (zure mugikorrak funtzio hori izanez gero).

Sintoma hauetakoren izanez gero, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Gomendagarria da pantaila begietatik distantzia jakin batera izatea, gelako argiak piztea eta orduro 15 minutuko atsedena hartzea; oso nekatuta egonez gero, utzi gailua erabiltzeari.

## Errepikatzen diren mugimenduak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Gailua erabiltzen ari zarela edo erabili ondoren ondoeza desagertzen ez bada, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana.

# FCCren oharra erabiltzaileentzat

**Adierazpen hau FCCren (Komunikazio Batzorde Federala) onespena duten produktu guztiei buruzkoa da (Comisión Federal de Comunicaciones). FCCren logoa eta/edo FCCren identifikazioa (FCC-ID: xxxxxx) dute aplikatu beharreko produktuek etiketan.**

Motorolak ez du onartu erabiltzaileak gailu honetan egin dezakeen aldaketarik. Edozein aldaketak bertan behera utz dezake ekipoa erabiltzeko erabiltzaileari emandako baimena. Ikus 47 CFR, 15.21 sek. Gailu honek FCCren araudiko 15. atalean ezarritakoa betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar eta (2) gailu honek jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne. Ikus 47 CFR, 15,19 (3) sek.

Ekipo honek proba bat gainditu du eta ikusi da B motako gailu digitaletarako ezarritako mugak betetzen dituela, FCCren Araudiko 15. atalean ezarritakoaren arabera. Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurka.

Ekipo honek irrati-maiztasunaren energia sor, erabil eta igor dezake, eta jarraibideen arabera instalatzeko eta erabiltzen ez bada, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irrati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da bermatu instalazio jakin batean interferentziarik sortuko ez denik. Ekipo honek irratia edo telebista jasotzeko garaian interferentzia kaltegarriak sortuko balitu (ekipoa itzali eta berriro piztuta ikus daiteke hori), erabiltzaileari aholkatzen zaio interferentzia hori zuzen dezala aukera hauetako baten bidez:

- Antena hartzailearen orientazioa edo kokapena aldatu.
- Hartzailearen eta ekipoaren arteko tartea handitu.
- Ekipoa eta hartzailea korronte-hartuneen zirkuitu desberdinera konektatu.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaileari edo teknikariari laguntza eskatu.

# Erabilera eta zainaza

Motorola telefonoa babesteko, hauetatik urrun eduki:



**Mota guztietako likidoak**
Ez utzi telefonoa uraren, euriaren, kanpoko hezetasunaren, izerdiaren edo bestelako hezetasun-moten eraginpean. Zure telefonoa busti egiten bada, ez erabili labe edo lehorgailurik hura lehenago lehortzeko; izan ere, telefonoa hondatu egin daiteke.



**Bero edo hotz handia**
Saihestu 0°C/0,00°C-etik beherako edo 45 °C/113 °F-etik gorako tenperaturak.



**Mikrouhinak**
Ez saiatu telefonoa mikrouhin-labe batean lehortzen.



**Hautsa eta zikinkeria**
Ez utzi telefonoa hautsaren, zikinkeriaren, harearen, janariaren edo desegokiak diren beste hainbat materialen mende.



**Garbitzeko produktuak**
Telefonoa garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorra. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbigarririk.



**Zorua**
Telefonoa ez dadila eror.

# Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun—deklarazioa

MOTOROLA

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA
1890/2000 araudia, 2005eko azaroaren 20koa

| | |
|---|---|
| Erreferentzia | LV012/05/356393/D |

Guk –Motorola Inc, US Highway 45, IL 60048, AEB– gure erantzukizunaren baldintzapean aitortzen dugu produktu honek

| | |
|---|---|
| Izena/Mota | MOTORAZR V9 |
| Deskribapena | UMTS/HSDPA ekipoa, Bluetooth-arekin |
| Oharra | |

betetzen ditu:

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE jarraibideko gaiari buruzko gainerako xedapenak
- Europako Batasuneko gaiari buruzko gainerako jarraibideak




Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, direktibaren 3. artikuluko baldintza espezifikoak.

| | |
|---|---|
| 3.1.a artikulua | EN50360:2001, EN60950:2000 |
| 3.1.b artikulua | EN 301 489-01 V1.4.1 : 08.2002 EN 301 489-17 V1.1.1 : 09.2000<br>EN 301 489-07 V1.2.1 : 08-2002 |
| 3.2 artikulua | ETSIEN301511V9.0.2 EN 300 328-2 V1.2.1 |
| 10 artikulua | Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako direktibaren oinarrizko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BABT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa. |

Lars S. Nielsen
Zuzendaria
Motorola GmbH
Husumerstrasse 251
D242941 Flensburg
Alemania
Telefonoa: +49 461 803 0
Faxa:+49 461 803 1829
h.el.: **rtte@motorola.com**



*(ordezkari baimenduaren sinadura)*

Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

# Birziklatuz ingurumena babestea

Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

## Telefono mugikorrak eta osagarriak birziklatzea

Ez bota telefono mugikorra eta osagarri elektrikoak –adibidez, kargagailuak, entzungailuak edo bateriak– etxeko zakarretara. Udalek eta erkidegoek aplikatutako estatuko birziklatze- eta bilketa-planaren arabera bota behar dira artikulu horiek. Nahiago baduzu, eraman Motorolak onartutako edozein zerbitzu-zentrotara behar ez dituzun gailu mugikorrak eta osagarriak elektrikoak. Motorolak onartutako estatuko birziklatze-planei eta Motorolaren birziklatze-jarduerei buruzko informazio gehiago duzu web gune honetan: **www. motorola.com/recycling.**

## Telefono mugikorren bilgarriak eta erabiltzailearen eskuliburua birziklatzea

Estatuko birziklatze- eta bilketa-baldintzen arabera bota behar dituzu produktuaren bilgarria eta eskuliburuak. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan erkidegoko agintariekin.

# Aholkuak eta iradokizunak

*Hasierako pantailan* (ikus 23. orrialdea):

| Nola... |
| --- |
| **Aldatu txirrin-mota**<br><br>**Telefonoa itxita dagoenean,** sakatu bolumen-tekla bat, txirrin-motaren profila ikusteko; sakatu funtzio ugariko tekla aldatzeko eta, gero, sakatu bolumen-tekla bat aldaketa gordetzeko. |
| **Entzun ahots-postontzia**<br><br>Luze sakatu 1 ahots-postontziko mezuak entzuteko. |
| **Kontsultatu azken deiak**<br><br>Sakatu ⊙ azken deien zerrenda ikusteko, eta, ondoren, sakatu * edo # **Egindako deiak, Dei jasoak** edo **Huts egindako deia** ikusteko. |

| Nola... |
| --- |
| **Gorde telefono-zenbaki bat**<br><br>Sartu telefono-zenbaki bat eta sakatu **Gorde**. |
| **Joan telefono-aurkibideko zenbakietara**<br><br>Telefono-aurkibidean, sakatu zenbaki-tekla bat tekla horretako letrarekin hasten diren sarreretara joateko. Adibidez, sakatu 5 hiru aldiz, "**L**" letrarekin hasten den lehen sarrerara joateko. |
| **Abesti batetik bestera joatea**<br><br>Abestien zerrendan, sakatu * edo # orrian gora edo behera mugitzeko. |

| Nola... |
| --- |
| **Erabili ahots-komandoak**<br><br>Luze sakatu [ahots-tekla] ahots-komandoen zerrenda irekitzeko. Ondoren, esan komandoetako bat. |
| **Itzuli hasierako pantailara**<br><br>Menuan, mezuan edo beste pantaila batean, sakatu [amaiera-tekla] egiten ari zarena bertan behera utzi eta hasierako pantailara itzultzeko. |

# Oinarrizko kontzeptuak

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

Bateria, SIM txartela eta memoria-txartela sartzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

## Eskuliburu honi buruz

Eskuliburu honetan, menuetako funtzio jakinak nola ireki aipatzen da:

**Joan hona:** > **Mezuak > Sortu mezua**

1 Beraz, hasierako pantailan: Sakatu erdiko tekla menua irekitzeko.

2 Sakatu nabigazio-tekla **Mezuak** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu erdiko tekla hautatzeko.

3 Sakatu nabigazio-tekla **Sortu mezua** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu erdiko tekla hautatzeko.

| **Ikurrak** | |
|---|---|
| | Horrek esan nahi du funtzioak sare-motaren, SIM txartel motaren edo harpidetza-motaren araberakoak direla; beraz, litekeena da leku batzuetan erabilgarri ez egotea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin. |
| | Horrek adierazten du funtzioak aukerako osagarri bat behar duela. |

# Pantaila

Telefonoa piztean azaltzen da *hasierako pantaila*.




**Oharra**: Erabiltzen duzun operadorearen arabera, litekeena da telefonoko hasierako pantaila eta irudiko desberdinak izatea.

Pantaila nagusitik zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki-teklak eta, ondoren, .

Hasierako pantailan, sakatu  gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, menuaren oinarrizko funtzioak irekitzeko. Hasierako pantailako zuzeneko sarbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

Sakatu *erdiko tekla*  menua irekitzeko. *Funtzio-teklen etiketek* adierazten duten uneko funtzio-teklaren funtzioa. Funtzio-teklen kokapena ikusteko, ikus 1. orrialdea.

Hasierako pantailaren goiko aldean egoeraren adierazleak ager daitezke:



1 **Estalduraren adierazlea**: barra bertikalek estaldura-maila zein den adierazten dute. Ezingo duzu deirik egin edo jaso, Ỹ edo Ỹ⊘ bistaratzen direnean.

2 **Sare-adierazlea**: 3G( ), *EDGE* (GSMaren bilakaerarako datu hobetuak ) edo *GPRS* (Pakete bidezko irrati-zerbitzua ) sareak erabiltzen ari bazara bistaratzen da.

3 **Datuen adierazlea**: konexioaren egoera erakusten du.

| | |
|---|---|
| / | datu-paketeen transferentzia segurua/ez segurua |
| / | aplikazio batera konexio segurua/ez segurua |
| / | *zirkuitu-kommutazio bidezko* datu-dei segurua (CSD)/ez segurua |
| / | USBra konektatzea/transferitzea |
| | erantzun automatikoa |
| | MOTOSYNC |
| | *HSDPA datu-transferentzia* (abiadura handiko pakete-sarbidea beheranzko kanalean) |
| | Bluetooth® konexioa aktibatuta |

4 **Desplazamendu-adierazlea**: ohikoa ez de sare baten bila badabil edo erabiltzen ari bada bistaratzen da. Adierazleak hauek izan daitezke:

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 2 G sare propioa | | 2 G desplazamendu-egoera |
| | 2.5 G sare propioa | | 2,5 G desplazamendu-egoera |
| | 3 G sare propioa | | 3 G desplazamendu-egoera |

- HSDPA sare propioa
- HSDPA desplazamendu-egoera

HSDPA eta *Abiadura handiko pakete-sarbidea beherazko kanalean* baliokideak dira, eta sare batzuetan daude erabilgarri.

5 **Linea aktiboaren adierazlea:** bistaratzen du dei bat aktibo dagoela adierazteko, edo deiak desbideratzeko funtzioa aktibatuta dagoela adierazteko. Bi linea dituzten SIM txartelen adierazleak hauek dira:

- 1 linea aktibatuta
- 1 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta
- 2 linea aktibatuta
- 2 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

6 **Abisuen adierazlea:** bistaratzen du egutegiko gertaera bati alarma edo alerta bat jartzen zaionean. Java™ aplikazio bat aktibo dagoenean bistaratzen da.

7 **Mezuen adierazlea:** mezu bat jaso denean bistaratzen da. Adierazleak hauek izan daitezke:

- testu-mezua
- ahots-mezua
- ahots- eta testu-mezua

8 **Txirrin-motaren adierazlea:** txirrin-motaren konfigurazioa bistaratzen du.

- txirrin altua
- bibrazioa eta txirrina
- txirrin baxua
- bibrazioa eta, ondoren, txirrina
- bibrazioa
- isilik

9 **Baterien adierazlea:** barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Pantailan **Bateria gutxi** azaltzen denean, kargatu berriro bateria.

# Testua idaztea

Funtzio batzuen bidez testua idatz daiteke.




Sakatu [#] testua idazteko pantaila batean, idazteko modu bat hautatzeko:

| Idazteko moduak | |
|---|---|
| [1] edo **1** | Testua idazteko modu **Nagusia** gisa jar dezakezu iTAP® [1] edo idazteko metodoa **1**. |
| [2] edo **2** | Idazteko **Bigarren** metodoa iTAP [2] edo estandarra jar daiteke, edo, bestela, **Bat ere ez** aukeratu, idazteko bigarren metodorik nahi ez baduzu. |
| **123** | **Zenbakizko** metodoak zenbakiak bakarrik idazteko balio du. |
| **@%** | **Ikurren** metodoak ikurrak bakarrik idazteko balio du. |

Testua idazteko modu nagusia eta sekundarioa ezartzeko, sakatu **Aukerak >Testu konfigurazioa** testua idazteko pantaila batean, eta hautatu **Lehen testua** edo **Bigarren testua**.

## iTAP® eta modu estandarrari buruzko aholkuak

- Sakatu 0 testua idazteko pantailan, guztiak maiuskulaz idazteko ( ABC ) guztiak minuskulaz idazteko ( abc ) edo hurrengo letra maiuskulaz idazteko( Abc ).
- Zenbakiak azkar idazteko, luze sakatu tekla numeriko bat zenbakizko metodora aldatzeko. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko. Idatzi tarte bat espazio bat iTAP modura edo modu estandarrera itzultzeko.
- Sakatu 1 puntuazio-ikurrak eta bestelako karaktereak sartzeko.
- Sakatu ·Ọ· kurtsore keinukaria mugitzeko, mezuko testua sartzeko edota editatzeko.
- Sakatu ⌫ kurtsorearen ezkerreko aldeak dagoen karakterea ezabatzeko. Luze sakatu ⌫ hitza ezabatzeko.
- Mezua bertan behera uzteko, sakatu ⏻.

## iTAP® modua

Testua idazteko edozein pantailatan, sakatu # testua idazteko iTAP metodoa aldatzeko. 1🕮 edo 2🕮 bistaratzen ez bada, sakatu **Aukerak > Testu konfigurazioa** iTAP modua testua idazteko modu nagusi gisa edo bigarren modu gisa konfiguratzeko.

iTAP metodoaren bidez, letra bakoitzari dagokion tekla behin bakarrik sakatuta idatz daitezke hitzak. iTAP softwareak teklen pultsazioak konbinatzen ditu hitz arruntak sortzeko, eta idazten duzun neurrian aurresaten ditu hitzak.

**Adibidez, 7 7 6 4 sakatzen baduzu, telefonoak hau bistaratuko du:**

Luze sakatu ·Ȯ· tekla gora edo behera, aukeren zerrenda ikusteko.

Sakatu ·Ȯ· eskuinerantz **Programa** onartzeko.




Sakatu **Aukerak** tekla, mezuaren aukerak irekitzeko.

Sakatu * kurtsorearen tokian espazio bat idazteko.

Sakatu **Bidali honi:** tekla, mezua amaitzean.

Beste hitz bat idatzi nahi baduzu (adibidez, **progresio**) segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.

**Aholkua**: ez kezkatu iTAP nola erabiltzen den ahazten bazaizu. Azalpenak behar izanez gero, testua idazteko pantaila batean, sakatu **Aukerak > Testu konfigurazioa > Testu tutoriala**.

# Metodo estandarra eta estandar zabaldua

Testua idazteko edozein pantailatan, sakatu # testua idazteko metodo estandarrera aldatzeko. **Abc1** edo **Abc2** azaltzen ez badira, sakatu **Aukerak > Testu konfigurazioa**, modu estandarra modu nagusi edo bigarren mailako modu gisa definitzeko.

Testua **Tekleatu** metodoarekin idazteko, sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriro, nahi duzun letra edo zenbakia azaldu arte. Errepikatu urrats hori letra bakoitza idazteko. **Tap osatua** modua berdin ibiltzen da, baina karaktere bereziak eta ikur gehiago ditu.

Adibidez, 7 behin sakatzen baduzu, telefonoak hau bistaratuko du:




Karakterea testua idazteko puntuan azaltzen da.

Sakatu **Aukerak** tekla, mezuaren aukerak irekitzeko.

Telefonoak hitz bat proposatuko dizu. Sakatu ⊹ eskuinera, hitza onartzeko, edo sakatu * kurtsorearen tokia tarte bat sartzeko.

Testua idatzi eta gero, sakatu **Bidali honi:** tekla hartzaileak sartzeko.

Esaldi bakoitzeko lehen karakterea beti bistaratuko da maiuskulaz. Beharrezkoa bada, sakatu ⊹ beherantz karakterea minuskulaz jartzeko, kurtsorea hurrengo posiziora mugitu aurretik.

# Zenbakizko metodoa

Sakatu # testua idazteko pantaila batean, **123** ikusi arte. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko.

**Zuzeneko sarbidea**: aldi baterako iTAP® modutik edo modu estandarretik zenbakizko modura aldatzeko, luze sakatu zenbaki-tekla bat. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko. Sartu espazio bat iTAP modura itzultzeko.

# Ikurren metodoa

Sakatu # testua idazteko ikuspegi batean, telefonoan ikurren zerrenda bat bistaratu arte. Mugitu nahi duzun ikurrera eta, ondoren, sakatu *erdiko tekla* ⊹.

# Bolumena

Sakatu bolumen-teklak honetarako:



- sarrerako deien alerta desaktibatzeko
- hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren bolumena aldatzeko
- txirrinaren bolumena aldatzeko hasierako pantailatik

  **Aholkua**: Batzuetan, isiltasuna eskertzen da. Horregatik, txirrina **Dardaratu** edo **Isilik** moduetara aldatzea erraza da. Horretarako, hasierako pantailan luze sakatu behera bolumen-tekla. Halaber, **Isilik** modura edo alderantziz ere alda dezakezu; horretarako, hasierako pantailan luze sakatu # tekla.

Telefonoa itxita dagoela txirrinaren bolumena aldatu egin nahi baduzu, ikus *Bizkor hasteko gida*.

# Nabigazio-tekla



Sakatu nabigazio-tekla gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, pantailako elementu batera joateko. Elementu batera mugitzen zarenean, sakatu *erdiko tekla* hautatzeko.

# Funtzio ugariko tekla

Funtzio ugariko teklak gauzak beste era batera egiteko aukera ematen dizu. Adibidez, menuko elementu batera joaten zarenean, funtzio ugariko tekla saka dezakezu hura hautatzeko ( erdiko tekla sakatu beharrean). Funtzio anitzeko teklak *erdiko teklaren* ekintza berberak egiten ditu . Funtzio ugariko tekla aurkitzeko, kontsultatu 1. orrialdea. Hasierako pantailan funtzio ugariko teklaren funtzioa aldatzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

**Oharra**: Telefonoa itxita dagoenean, funtzio ugariko teklak kanpoko teklak blokeatzen eta desblokeatzen ditu, eta kanpoko pantailako menuetara itzultzen da.

# Ahots-komandoak

Ahots-komandoak erabil ditzakezu telefonoari zer egin nahi duzun adierazteko.

**Oharra**: Funtzio hau aukerakoa da. Hizkuntza batzuk ez dute ahots-komandoa onartzen.

1. Luze sakatu tekla.

   Telefonoak eskatuko dizu komando bat esateko.

2. Esan zerrendako ahots-komando bat (ordezkatu *555-1212* edozein telefono-zenbakirekin eta *Jon Otegi* aurkibideko izen batekin):

| ahots-komandoak |
|---|
| **"Llamar** *555-1212*" |
| **"Llamar** *Jon Otegi*" |
| **"Enviar Email a** *Jon Otegi*" |
| **"Enviar nota de voz** *555-1212*" |
| **"Enviar nota de voz** *Jon Otegi*" |
| **"Enviar mensaje a** *555-1212*" |
| **"Enviar mensaje a** *Jon Otegi*" |
| **"Buscar** *Jon Otegi*" |
| **"Ir al buzón de voz"** |
| **"Ir a la cámara"** |
| **"Ir a rellamada"** |
| **"Ir a llamadas recibidas"** |
| **"Comprobar estado"**<br>Bateria-maila eta estaldura zenbatekoak diren eta desplazamendu-moduan dagoen edo ez adieraziko dizu telefonoak. |

| ahots-komandoak |
| --- |
| **“Comprobar batería”** |
| **“Comprobar cobertura”** |
| **“Comprobar red”** |
| **“Comprobar mi número de teléfono”** |
| **“Desactivar avisos”**<br>Soinua desaktibatuko du telefonoak ahots-komandoen argibideetarako (adibidez, “**Diga un comando**”). Oharrak berriz aktibatzeko, esan **“Activar avisos”.** Hau esanez berretsiko du ekintza telefonoak: “Avisos activado”. |

**Aholkua**:

- Telefono-zenbaki batera deitu nahi duzunean, sarrera baten izena esan dezakezu zenbakiarekin batera. Adibidez, esan “**Llamar** Jon Otegi móvil” Jon Otegiren telefono mugikorraren zenbakira deitzeko.
- Esan zenbakiak abiadura eta bolumen normalean, digituak banan-banan argi ahoskatuz. Ez egin etenik digituen artean.
- Ahots-komandoei buruzko laguntza eskuratzeko, sakatu **Ahots-tekla,** eta, ondoren, sakatu **Laguntza.**

# Ahots-komandoak konfiguratzea

Ahots-komandoen konfigurazioa alda dezakezu.

1. Luze sakatu tekla ahots-komandoen zerrenda irekitzeko.
2. Sakatu **Konfig.**

3 Hauta ezazu konfigurazio hauetako bat:

| Ahots-komandoak konfiguratzea |
|---|
| **Emaitzen zerrenda** |
| Emaitzen zerrendak aktibatzen edo desaktibatzen ditu. Telefonoak aukeren zerrenda erabiltzen du ahots-komandoak galdera hauen bidez ziurtatzeko: “**Ha dicho...**” eta aukeren zerrendako elementu bat. |
| **Sentsibilitatea** |
| Honi esker, telefonoak probabilitate handiagoa edo txikiagoa du ahots-komando bat baztertzeko. |
| **Zenbaki batera deitzea** |
| Digituak ahoskatzeko duzun modua ezagutzeko entrenatzen du telefonoa. |
| **Soinua** |
| Soinua doitzen du ahots-komandoetarako. |
| **Honi buruz** |
| Komandoen softwareari buruzko informazioa bistaratzen du. |

# Kanpoko pantaila

Telefonoa ixtean, kanpoko pantailak data, egoera-adierazleak eta sarrerako deien jakinarazpenak eta bestelako gertaerak bistaratzen ditu. Telefonoaren egoera-adierazleen zerrenda bistaratzeko, ikus 23. orrialdea. Egoera-adierazle batzuk ez dira kanpoko pantailan bistaratzen.

Telefonoaren pantailan ukipen-tekla berezi batzuk daude, aukera hauetarako:

- galdutako deiak (ikus 35. orrialdea)
- testu-mezu berriak (ikus 49. orrialdea),
- 2 alarma (alarma bat ezarri nahi baduzu, ikus 68. orrialdea).

irudia, musika eta bideoa aukeren ukipen-teklak erabili nahi badituzu, ikus *Bizkor hasteko gida*.

**Aholkua**: Kanpoko pantailan irekitzen dituzun programak aktibo egongo dira telefonoa ireki eta itxi arren. Kanpoko pantailako programak **ixteko, luze sakatu** erdiko ukipen-tekla.

# Esku librekoaren bozgorailua

Telefonoaren esku libreko bozgorailua erabil dezakezu deitzeko, telefonoa belarriaren ondoan eduki gabe.

Dei batean esku libreko bozgorailua konektatzeko, sakatu **Bozgorailua** (aukerarik badago), edo, bestela, **Aukerak > Bozgorailua aktibatu.** Pantailan, **Bozgorailua aktibatuta** mezua bistaratzen da desaktibatu edo deia amaitu arte.

Telefonoa itxita dagoela galdutako dei bati erantzuteko, ikus 43. orrialdea.

**Oharra**: esku libreko bozgorailuak ez du funtzionatzen telefonoa autoko kit batera edo esku libreko entzungailuetara konektatuta dagoenean edo itxita dagoenean.

# Kodeak eta pasahitzak

Telefonoaren lau digituko **desblokeatze-kodea 1234** da, hasiera batean, eta 6 digituko **segurtasun-kodea**, berriz, **000000**.

Zure operadoreak kode horiek aldatu ez baditu, honela egin beharko zenuke:

**Joan hona:** ◆ > **Ezarpenak > Segurtasuna > Pasahitz berriak**

**SIM** txartelaren **PIN** kodea eta deiak blokeatzeko pasahitzak ere alda ditzakezu.

**Desblokeatze-kodea ahaztu bazaizu:** **Desblokeatze-kodea** mezua bistaratzen denean, idatzi 1234 edo telefono-zenbakiaren azken 4 digituak. Horrek balio ez badu, sakatu ◆ eta sartu sei digituko segurtasun-kodea.

**Beste kode batzuk ahaztu badituzu**: Segurtasun-kodea, SIM txartelaren PINa, PIN2 kodea edo deiak murrizteko pasahitza ahaztu baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

# Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoa blokea dezakezu, beste batzuk erabil ez dezaten. Telefonoa blokeatzeko edo desblokeatzeko, lau digituko desblokeatze-kodea behar duzu. Telefonoa **eskuz blokeatzeko**: Sakatu ◆ > **Ezarpenak > Segurtasuna > Telefonoa blokeatu > Blokeatu orain**, eta, ondoren, idatzi lau digituko desblokeatze-kodea.

Telefonoa itzaltzen duzun bakoitzean **automatikoki blokeatzeko**: Sakatu ◆ > **Ezarpenak > Segurtasuna > Telefonoa blokeatu > Automat. blokeatu > Aktibatuta**, eta, ondoren, idatzi lau digituko desblokeatze-kodea.

larrialdi-deiak egin daitezke blokeatutako telefono batetik (kontsultatu 45. orria). Telefonoa blokeatuta egonda ere, deiak edo mezuak jasotzean jo edo bibratu egingo du, **baina desblokeatu egin behar da erantzun nahi bada**.

# Pertsonalizatzea

## Ahotsa duen telefonoa

Deiak jasotzen dituzunean, telefonoak deitzen ari denaren zenbakia edo izena “esan” dezake, txirrina jo beharrean. Gainera, telefonoak izenak irakur ditzake, **telefono-aurkibidean** batetik bestera mugitzen garenean. Horrez gain, digituak ere esan ditzake, deiak egiteko markatu ahala. Funtzio horiek aktibatzeko desaktibatzeko:

**Joan hona:** > **Ezarpenak > Pertsonalizatu > Soinuen konfig. > Ahotsa duen telefonoa**

Telefono-aurkibidean gordetako edonoren izena edo gorde gabeko telefono-zenbakien digituak irakurtzen ditu telefonoak.

**Oharra**: **Ahotsa duen telefonoa** funtzioa aktibatzen baduzu, telefonoak **ez du erabiltzen** sarrerako deientzat hautatutako **txirrin-mota**.

## Ordua eta data

Telefonoak automatikoki eguneratu ditzake ordu-eremua, ordua eta data. Erabili ordua eta data egutegirako.

Ordua, data eta ordu-eremua sarekoarekin **sinkronizatzeko**: Sakatu > **Ezarpenak > Hasierako konfigur. > Ordua eta data > Automat. eguneratu > Ordua eta ordu eremua**. Telefonoak ordu-eremua, data eta ordua automatikoki eguneratzea nahi ez baduzu, hautatu **Ordua soilik.**

Ordu-eremua, ordua eta data **eskuz** doitzeko, desaktibatu **Automat. eguneratu** aukera, eta, ondoren:

Sakatu ◆ > **Konfigurazioa > Hasierako konfigurazioa > Ordua eta data > Ordu eremua**, *ordua* edo *data*.

Ordu-eremuen zerrendan agertzen den hiri bateraino joateko, sartu hiri-izenaren lehen letra teklen bidez.

**Aholkua:** Errazago sartzeko hiru ordu-eremu hautatu nahi badituzu, sakatu ◆ > **Tresnak > Mundu erlojua**. **Mundu erlojua** irekitzen duzunean, **Aukerak** saka dezakezu, **Maparen bista** ordu-eremuekin ikusteko.

Pantaila nagusirako erloju **analogikoa edo digitala** hautatzeko, sakatu ◆ > **Ezarpenak > Pertsonalizatu > Hasierako pantaila > Erlojua**.

# Pantailaren hondoa

Argazki, irudi edo animazio bat ezar dezakezu hasierako pantailaren hondo gisa erabiltzeko.

**Oharra:** Halaber, gai bat aukera dezakezu pantailaren hondo gisa erabiltzeko (ikus 38. orrialdea).

**Joan hona:** ◆ > **Ezarpenak > Pertsonalizatu > Horma papera**

| Aukerak | |
|---|---|
| **Irudia** | Sakatu ◆ gorantz edo beherantz irudi bat hautatzeko edo, bestela, hautatu **Bat ere ez** pantailaren hondorik erabili nahi ez baduzu. |
| **Diseinua** | Hautatu **Erdia** irudia pantailan erdiratzeko, **Baldosa** irudia pantailan behin eta berriro errepikatzeko edo **Pantailari egokitua** irudia pantailari egokitzeko. |

# Pantaila-babesa

Argazki bat, irudi bat edo animazio bat pantaila-babes gisa jar daiteke. Pantaila-babesa bistaratzen da tapa irekita dagoenean eta denbora-tarte jakin batean telefonoa ezertarako erabili ez denean.

**Oharra**: halaber, gai bat aukera dezakezu pantaila-babes gisa erabiltzeko (ikus 38. orrialdea).

**Aholkua**: Bateriaren iraupena areagotzeko, desaktibatu pantaila-babesa.

**Joan hona:** ◆ > **Ezarpenak > Pertsonalizatu > Pantaila babesa**

| Aukerak | |
|---|---|
| **Irudia** | akatu Ⓜ gorantz edo beherantz irudi edo animazio bat hautatzeko edo, bestela, hautatu **Bat ere ez** pantaila-babesik nahi ez baduzu. |
| **Atzerapena** | **Hautatu pantaila-babesa bistaratzeko zenbat denbora pasatuko den.**<br>**Oharra**: ez duzu pantaila-babesa ikusiko atzeko argia edo pantaila desaktibatu ondoren agertzen bada (ikus 39. orrialdea). |

# Gaiak

Telefonoari aplika dakiokeen irudi- eta soinu-fitxategien multzo bat da *telefonoko gai bat*. Gai gehienetan hauxe sartzen da: pantailaren hondoko irudi bat, pantaila-babes gisa jartzeko irudi bat, pantailaren formatua eta txirrin bat. Baliteke telefonoak gai batzuk ekartzea, baina gehiago deskarga ditzakezu.

Gai bat **aplikatzeko**, sakatu ◆ > **Multimedia > Gaiak >** *gaia*.

Gai bat **deskargatzeko**, ikus 84. orrialdea.

**Deskargatutako gaiak ezabatzeko**, sakatu ◆ > **Multimedia > Gaiak**, joan gairaino eta, ondoren, sakatu **> Aukerak > Ezabatu edo Guztiak ezabatu**.

Gai baten **aurrebista bistaratzeko**, sakatu ◆ > **Multimedia > Gaiak**, joan gairaino eta, ondoren, sakatu **Aukerak > Aurrebista**.

# Pantailaren itxura

**Oharra**: **Bateria aurreztu** funtzioarekin telefonoak ez ditu pantaila eta teklatua pizten ilun ez badago. Funtzio hau aktibatzeko, sakatu > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Bateria aurreztea** > **Aktibatuta**.

Telefonoaren **pantailaren itxura** eta izaera definituko duen pantaila-formatu bat aukeratzeko: Sakatu > **Ezarpenak** > **Pertsonalizatu** > **Azala.** Telefonoaren formatua ere ezar daiteke gaiaren barruan *(38. orrialdea).*

Pantailaren distira definitzeko: Sakatu > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Atzeko argia**.

Bateriaren iraupena luzatzeko, teklatuaren **argia** itzali egingo da telefonoa erabiltzen ez denean. Atzeko **argia** berriz piztuko da tapa ireki eta tekla bat sakatzean. Argia itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezartzeko, sakatu > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Argitasuna**

Bateriaren iraupena luzatzeko, **pantaila** itzali egin daiteke telefonoa erabiltzen ez denean. Pantaila berriz piztuko da tapa ireki eta tekla bat sakatzean. Pantaila itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezartzeko, sakatu > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Bistaratze muga**

# Erantzuteko aukerak

Sarrerako deiei erantzuteko hainbat modu daude. Erantzuteko aukera bat aktibatzeko edo desaktibatzeko:

**Joan hona:** ◆ > **Ezarpenak > Dei jasoen konfigur. > Erantzun-aukerak**

| Aukerak |
|---|
| **Multitekla**<br>Edozein tekla sakatuta erantzuteko. |
| **Ireki, erantzuteko**<br>Tapa irekita erantzuteko. |

# Deiak

Deitzeko edo deiak jasotzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

## Dei-alerta desaktibatzea

Bolumen-teklak saka ditzakezu, erantzun baino lehen dei-alerta desaktibatzeko.

## Azken deiak

Telefonoak sarrerako eta irteerako deien zerrenda du, eta konexioa lortu ez den deiak ere azaltzen dira. Lehenbizi, azkeneko deiak azaltzen dira. Dei zaharrenak ezabatu egiten dira berriak sartzen doazen heinean.

**Joan hona:** ◆ > **Azken deiak**, ondoren, sakatu [*] edo [#] **Egindako deiak, dei jasoak** edo **huts egindako deiak** aukeretara joateko.

Sakatu [⊙] hasierako pantailan, egindako deien zerrenda ikusteko.

Joan dei batera. Deien ondoan ✓ adierazlea baldin badago, deia egin dela esan nahi du.

- Zenbaki horretara deitzeko, sakatu [⊙].
- Deiaren xehetasunak ikusteko (ordua eta data, adibidez), sakatu *erdiko tekla* ◆.

- **Azken deiak** menua ikusteko, sakatu **Aukerak.** Menu honetan hauxe ikus dezakezu:

| Aukerak |
| --- |
| **Iragazi honen bidez**<br>Dei guztiak, egindakoak, jasotakoak edo galdutakoak hauta ditzakezu. |
| **Gorde**<br>Aurkibidean sarrera bat sortzen du, **Zk** eremuan zenbaki bat jarrita. |
| **Bideo-deia**<br>Aukeratutako zenbakira bideo-dei bat egiten du. |
| **Ezabatu**<br>Sarrera ezabatzen du. |
| **Ezabatu guztiak**<br>Zerrendako sarrera guztiak ezabatzen dira. |

| Aukerak |
| --- |
| **Ezkutatu identif./ Erakutsi identif.**<br>Hurrengo deian deiaren identifikazioa ezkutatu edo bistaratzen du. |
| **Bidali mezua**<br>Testu-mezu berri bat irekitzen du, **A** eremuan azaltzen den zenbakiarekin. |
| **Bidali ahots mezua**<br>Ahots/mezu bat grabatu eta aukeratutako zenbakira bidaltzen du. |
| **Gehitu digituak**<br>Zenbakiaren atzean digitu bat gehitzen du. |
| **Erantsi zenbakia**<br>Telefono-aurkibideko edo azken deien zerrendako zenbaki bat gehitzen du. |

| Aukerak |
|---|
| **Tonuak bidali**<br>Zenbakia sarera bidaltzen du DTMF tonu gisa.<br>**Oharra**: aukera hau **deiak irauten duen bitartean** bakarrik bistaratzen da. |
| **Oharretako koad.**<br>Zenbakia testu-editore batean irekitzen du. |
| **Deiaren iraupena**<br>Deia zer ordutan egin zen esaten du. |
| **Deiaren kostua**<br>Deien kostuari buruzko informazioa bistaratzen du |

# Deia itzultzea telefonoa itxita dagoela

Telefonoa itxita dagoela dei bati erantzuten ez badiozu, kanpoko pantailan **Huts egindako deiak** bistaratuko dira.

1. Sakatu pantaila-tekla **Huts egindako deien** zerrenda ikusteko, edo jakinarazpenari kasurik ez egiteko.
2. Sakatu pantaila-teklak dei batera joateko.
   - Bozgorailua (edo konektatutako entzungailu batzuk) erabilita zenbaki horretara **deitzeko**, sakatu pantaila-tekla. Deia amaitzeko, luze sakatu funtzio ugariko tekla.

**Aholkua**: bozgorailuaren bidez dei bati erantzun ondoren telefonoa irekitzen baduzu, sakatu **Aukerak > Bozgorailua desaktibatu**, bozgorailu hori desaktibatzeko.

- **Itzuli** nahi baduzu, sakatu funtzio ugariko tekla.
- **Galdutako deien pantaila itxi nahi baduzu, luze sakatu** erdiko ukipen-tekla.

# Berriro markatzea

1. Sakatu pantaila nagusian, azken deien zerrenda ikusteko.
2. Joan deitu nahi diozun zenbakira, eta, ondoren, sakatu

**Zenbakia okupatuta** dagoela adierazten duen seinalea entzuten baduzu eta **Huts egindako deia** mezua bistaratzen bada, sakatu edo **Berr. saiatu** zenbaki horretara berriro deitzeko. Deia behar bezala egiten denean, telefonoak behin jotzen du edo bibratu egiten du, **Berriz markatzen** mezua bistaratzen da, eta, ondoren, konexioa ezartzen da.

# Dei-identifikatzailea

*Deitzen ari den linea identifikatzeko funtzioak (* edo dei-identifikatzailea*)* deitzen ari denaren telefono-zenbakia bistaratzen du kanpoko eta barruko pantailan.

Aurkibidean badago, telefonoak dei-egilearen izena eta irudia bistaratzen ditu; identifikatzeko informaziorik ez dagoenean, berriz, **Dei jasoak** agertzen da.

Aurkibideko sarrera jakinetatik deitzen dutenean, txirrin-mota berezi bat erreproduzitzeko ere konfigura dezakezu telefonoa (ikus 67. orrialdea).

Deitzen diozun hurrengo pertsonaren telefonoan **telefono-zenbakia** bistaratzeko edo ezkutatzeko, idatzi telefono-zenbakia eta sakatu **Aukerak > Ezkutatu identif./Erakutsi identif.**

# Larrialdi-deiak

Zure operadoreak larrialdi-telefono bat edo gehiago programa ditzake (adibidez, 112); horietara edozein egoeratan dei dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean edo SIM txartela sartu ez denean ere.

**Oharra:** galdetu zure operadoreari larrialdi-zenbakia; izan ere, herrialde batetik bestera aldatu egin daiteke. Baliteke zure telefonoak ez funtzionatzea leku guztietan eta batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea interferentzia-, inguru- edo sare-arazoengatik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (adibidez, larrialdi medikoetarako).

1 Sakatu teklatuko teklak larrialdi-zenbakia idazteko.

2 Sakatu larrialdi-zenbakira deitzeko.

# Ahots-postontzia

Sareak telefonoan jasotako ahots-mezuak gordetzen ditu. Zure mezuak entzuteko, zure ahots-postontziko zenbakira deitu behar duzu.

**Oharra:** zure operadoreak funtzio honen erabilerari buruzko informazio osagarria gehi dezake.

Ahots-postontzian mezu bat **jasotzen** duzunean, mezuaren adierazlea eta **Mezu berri bat honena** bistaratzen ditu telefonoak. Sakatu **Deitu** mezua entzuteko.

Ahots-postontziko mezuak **entzuteko**:

Joan hona: > **Mezuak > Ahots bidezko posta**

**Zuzeneko sarbidea:** Hasierako pantailan, luze sakatu 1 zure ahots-postontzia entzuteko.

Baliteke zure telefonoak eskatzea ahots-postontziko telefono-zenbakia gordeta izateko. Ahots-postontziaren zenbakia zein den ez badakizu, jo zure operadorearengana.

**Oharra**: zenbaki horretan ezin dira karaktere hauek gorde: **p** (etenaldikoa), **w** (itxarotekoa) eta **n** (zenbakia). Ahots-postontziko zenbaki bat karaktere horiekin gorde nahi baduzu, sortu horretarako sarrera bat aurkibidean. Horrela, sarrera hori erabil dezakezu ahots-postontzira deitzeko.

**Aholkua**: **Huts egindako deien** zerrenda irekitzeko, ikus 41. orrialdea.

# Bideo-deia

3G bideoa duen telefono batera deitzen baduzu, elkar ikusi ahal izango duzue hitz egiten ari zareten bitartean.

Zure telefonoa **3G ez den sare** batera konektatuz gero, bideo-deiak ez dira ibiliko (ikus desplazamendu-adierazlea, 24. orrialdean).

**Oharra**: telefonoaren kanpoko objektiboaz gain, **kamera piztuta dagoela esaten duen adierazlea** ere badago.

Adierazle hori keinuka hasten da, kamera piztuta dagoenean, inguruan daudenek jakin dezaten argazki edo bideo batean ager daitezkeela jakinarazteko.

## Bideo-dei bat egitea

1 Idatzi telefono-zenbaki bat, eta, ondoren, sakatu dei bat egiteko.

Hitz egiten ari zarela:

- Sakatu **Bideoa gelditu**, mikrofonoa aktibatuta dagoela, bideo-deira aldatzeko.
- Beste **ahots-dei bat** onartzen baduzu, telefonoak bideo-dei hori ahots-dei bihurtuko du.
- Beste **sarrerako bideo-dei bat** onartzen baduzu, telefonoak amaitu egingo du bideo-dei hori.
- Telefonoa ireki eta itxi egin dezakezu, kamerako lentetik ikusten dena ikus dezan deia egin duen pertsonak.

Kameraren lentea, telefonoaren goiko aldean dago *(ikus 2. orrialdea)*.

2 Dei bat amaitzeko, sakatu .

# Bideokonferentzia bat grabatzea

**Oharra***:* telefonoko elkarrizketak grabatzea araututa dago herrialde guztietan pribatutasunari eta elkarrizketak grabatzeari buruzko estatuko legeen bidez. Bete beti funtzio hori erabiltzeari buruzko legeak.

Bideokonferentzia bat graba dezakezu, bideo gisa. Bideokonferentzia batean*:*

1 Sakatu telefonoaren eskuineko aldeko *kameraren tekla*, deia grabatzen hasteko.

Telefonoak **Grabatzen** bistaratuko du. Sarrerako bideoa eta sarrerako eta irteerako audioa grabatzen dira.

2 Sakatu berriro kameraren tekla, deiaren grabazioa eteteko eta bideoa gordetzeko.

Grabazioa automatikoki gelditzen da, deia amaitzen denean edo grabatzeko muga edo bideoaren memoria gainditzen direnean.

Pantaila nagusian bideoklipa ikusteko, sakatu · > **Multimedia > Media-bilatzailea > Bideoak > Bideo guztiak >** *bideoaren izena.*

**Oharra***:* bideoa grabatzeko, beste telefonoko bideo-ekipoarekin bateragarria izan behar du bideoak.

# Konexioak

## Haririk gabeko Bluetooth®

Telefonoak Bluetooth haririk gabeko konexioak onartzen ditu. Telefonoa Bluetooth entzungailu batera edo autorako kit batera konekta dezakezu, deiak esku libreko sistemarekin egiteko. Halaber, Bluetooth konexioa onartzen duen telefono edo ordenagailu batera konekta dezakezu fitxategiak trukatzeko.

Gainera, A2DP Bluetooth® entzungailu estereoak erabil ditzakezu, telefonoan gordetako musika-fitxategiak entzuteko.

**Oharra**: Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzen baduzu, arreta galaraz dezakezu. Amaitu deia, gidatzen kontzentratzeko arazoak eragiten badizkizu. Gainera, haririk gabeko mugikorrak eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta dago toki batzuetan.

Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

**Bluetooth konexioetan ahalik eta segurtasun gehien izateko**, konektatu beti Bluetooth gailuak ingurune seguru eta pribatuetan.

### Entzungailuak edo autorako kitak erabiltzea

**Telefonoa esku libreko gailu batera konektatzen saiatu baino lehen**, egiaztatu gailua aktibatuta eta prest dagoela, sinkronizatzeko edo lotzeko moduan (ikus gailu honen erabiltzailearen eskuliburua).

**Joan hona:** > **Konexioa > Bluetooth lotura >** [Gehitu audio gailuak]

Bere irismen-erradioan aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko du telefonoak.

1 Joan zerrendako gailu batera eta sakatu *erdiko tekla*.
2 Sakatu **Bai** edo **Ados** gailuarekin konektatzeko.
3 Behar izanez gero, sartu gailuaren pasahitza (adibidez, **0000**) eta sakatu **Ados** tekla.

Telefonoa konektatuta dagoenean, Bluetooth-aren adierazlea azalduko da hasierako pantailan.

Egile-eskubideekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira erreproduzitu Bluetooth konexio baten bidez.

**Zuzeneko sarbidea**: Bluetooth-a aktibatuta dagoenean, telefonoa automatikoki konektatzen da lehendik erabilitako esku libreko gailuekin. Gailu hori piztu edo telefonotik hurbil jartzea besterik ez duzu. Gailua konektatuta ez badago, itzali eta piztu berriro.

Dei batean edo soinu-fitxategi bat erreproduzitzen ari denean, **Aukerak > Bluetooth bidez errepr.** saka dezakezu lehen erabilitako entzungailu bat edo gailu bat sinkronizatzeko.

**Aholkua**: Zure entzungailuei edo autorako kitari buruzko informazio gehiago nahi duzu? Gailu bati buruzko informazio espezifikoa behar baduzu, ikus jarraibideak.

## Fitxategiak beste gailuetan kopiatzea

Bluetooth konexio bat erabil dezakezu multimedia-fitxategiak, aurkibideko sarrerak, egutegiko gertaerak edo Interneteko zuzeneko sarbideak telefonotik ordenagailura edo beste gailu batera kopiatzeko.

**Oharra**: egile-eskubideekin babestutako objektu batzuk ezin dira kopiatu.

1 Telefonoan, zoaz beste gailu batera kopiatu nahi duzun elementura.

2 Sakatu **Aukerak** eta, gero, aukeratu:

- **Bidali > Bluetooth bidez**, multimedia-fitxategia kopiatzeko.
- **Partekatu > Kontaktua > Bluetooth**,agendako sarrerak kopiatzeko.
- **Bidali > Bluetooth bidez**, egutegiko gertaerak kopiatzeko.

3 Hautatu detektatutako gailu-izen bat edo ***[Bilatu gailuak]*** fitxategia zein gailutan kopiatu nahi duzun bilatzeko.

**Fitxategian beste gailuan kopiatu ezin badu,** ziurtatu gailu hori **aktibatuta** eta **detektatzeko moduan** dagoela (ikus gailu horren erabiltzailearen eskuliburua). Ziurtatu ez dagoela antzeko beste Bluetooth konexio batekin okupatuta.

**Oharra**: telefonoa Bluetooth gailu batera konektatutakoan, gailu horrek antzeko Bluetooth konexioak egin ahal izango ditu telefonoarekin. Pantailaren goiko aldean Bluetooth adierazlea bistaratuko da, Bluetooth konexioa eginda dagoenean. Gailu bateko **sarbide**-konfigurazioa aldatzeko, ikus 53. orrialdea.

# Fitxategiak beste gailu batetik jasotzea

Pantailaren goiko aldean Bluetooth-aren adierazlea bistaratzen ez bada, aktibatu telefonoko Bluetooth funtzioa. Horretarako, sakatu **> Konexioa > Bluetooth lotura > Konfigurazioa > Energia > Aktibatuta.**

1 Jarri telefonoa gailutik hurbil, eta bidali fitxategia gailutik.

Telefonoak eta gailu igorleak elkar ezagutzen ez badute, jarri telefonoa detektatzeko moduan, gailuak detekta dezan, eta sakatu **> Konexioa > Bluetooth lotura > Aurkitzeko moduan**.

2 Sakatu **Onartu** telefonoan, beste gailu bateko fitxategia onartzeko.

Telefonoak adieraziko dizu noiz amaitu den fitxategia transferitzeko prozesua. Behar izanez gero, sakatu **Gorde** fitxategia gordetzeko.

# Fitxategiak inprimagailu batera bidaltzea

Bluetooth bidezko konexioa erabil dezakezu irudi bat, mezu bat, kontaktuetako sarrera bat edo egutegiko gertaera bat bidaltzeko telefonotik inprimagailu batera.

**Oharra***:* ezin dira inprimatu **Mezu-txantiloiak** edo aurkibideko **Posta-zerrendak**.

1 Telefonoan, joan inprimatu nahi duzun objektura eta, ondoren, sakatu **Aukerak > Inprimatu > Bluetooth** Egutegiaren kasuan, hila, astea edo eguna inprima ditzakezu.

**Aholkua***:* ikusten bada, inprima dezakezu. Kamerarekin argazki bat ateraz gero, **Aukerak** sakatu eta, ondoren, **Inprimatu** hauta dezakezu.

2 Erabiltzerik baduzu, hautatu beste objektu osagarri batzuk edo inprimatzeko beste aukera batzuk.

3 Hautatu **Inprimagailuak** menuan azaltzen den identifikatutako inprimagailu-izen bat, edo ***[Gailuak bilatu]*** objektua zein gailutara bidali nahi duzun bilatzeko.

**Oharra***:* Inprimatzen saiatzen ari denean **Zerbitzurik ez dago** bistaratzen bada, hautatu **Aukerak > Kudeatu > Kopiatu > Bluetooth**. Erabili beti aukera hau 4 x 6 tamainako argazkiak inprimatu nahi dituzunean.

# Bluetooth funtzio aurreratuak

Gailua *detektatzen* da, behin konektatu ondoren (ikus 48. orrialdea).

| Funtzioak |
| --- |
| **Telefonoa beste gailu batzuetarako ikusgai jartzea**<br>Bluetooth gailu batek zure telefonoa detektatzea:<br>· > **Konexioa** > **Bluetooth lotura** > **Aurkitzeko moduan** |
| **Detektatutako gailu batera konektatzea**<br>Esku libreko gailu identifikatu batekin telefonoa konektatzea:<br>· > **Konexioa** > **Bluetooth lotura** > **Gehitu audio gailuak** > *gailuaren izena* |

| Funtzioak |
| --- |
| **Entzungailuekin edo esku libreko gailu batekin konexioa etetea**<br>· > **Konexioa** > **Bluetooth lotura** > **Gehitu audio gailuak**<br>Joan gailuaren izenera eta sakatu **Kendu**. |
| **Dei batean, entzungailu batera edo esku libreko gailu batera aldatzea**<br>Dei batean, sakatu **Aukerak** > **Bluetooth bidez erreprod.**, detektatu den entzungailura edo autoko kitera aldatzeko.<br>Telefonoa automatikoki konektatuko da, edo hautatzeko gailuen zerrenda bistaratuko da. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Soinu-fitxategiak erreproduzitzea identifikatutako entzungailu batean**<br>Soinu-fitxategi bat erreproduzitzen ari den bitartean, sakatu **Aukerak > Bluetooth bidez erreprod.**, detektatu den entzungailura aldatzeko.<br>Telefonoa automatikoki konektatuko da, edo hautatzeko gailuen zerrenda bistaratuko da.<br>Egile-eskubideekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira erreproduzitu Bluetooth konexio baten bidez. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Multimedia-objektua gailu batera mugitzea**<br>**Kontuz:** objektu bat mugitzen baduzu, telefonoko jatorrizko objektua **ezabatzen** da.<br>Joan objektura, sakatu **Aukerak > Kudeatu > Mugitu** eta hautatu gailuaren izena. Egile-eskubideekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira mugitu. |
| **Multimedia-objektua gailu batera kopiatzea**<br>Joan objektura, sakatu **Aukerak > Kudeatu > Kopiatu** eta hautatu gailuaren izena. Egile-eskubideekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira kopiatu. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Gailuaren ezaugarriak aldatzea**<br>**> Konexioa > Bluetooth lotura > Gailuen historikoa**<br>Zoaz gailuaren izenera, eta sakatu *erdiko tekla.*<br>Oharra: **sarbide-konfigurazioak** mugatu egin dezake gailua telefonora konektatzeko modua. Hainbat aukera dituzu: **Automatikoa** (beti konektatu), **Galdetu beti** (konektatu baino lehen beti galdetu), **Behin bakarrik, Inoiz ez** edo **Pertsonaliz.**. |
| **Bluetooth aukerak konfiguratzeko:**<br>> L **Konexioa > Bluetooth lotura > konfigurazioa** |

# Kable bidezko konexioak



Telefonoak mikro-USB ataka bat du, ordenagailu batera konektatzeko eta datuak transferitzeko.

**Oharra**: baliteke Motorola Originalen jatorrizko laguntza-softwarea eta USB datu-kableak bakoitza bere aldetik saltzea. Begiratu ordenagailua edo gailu eramangarria, zein hari-mota behar duten ikusteko. Konektatutako ordenagailu baten **bidez datu-deiak** egiteko, ikus 77. orrialdea.

# Memoria-txartela ordenagailura konektatzea

Kable bidezko konexio bat erabil dezakezu, ordenagailu pertsonal batetik telefonoko memoria-txartelera sartzeko.

**Oharra**: telefonoa ordenagailura konektatuta dagoenean, memoria-txartela ordenagailu bidez bakarrik erabil daiteke.

## Telefonoan:

Konektatuta badago, **deskonektatu** telefonoaren **kablea**, eta, ondoren, sakatu ·◆· > **Konexioa > USB ezarpenak > Konexio lehenetsia > Memoria txartela**.

Ekintza horrek USB konexioa memoria-txartelerantz bideratzen du.

**Konektatu kablea** telefonora eta ordenagailuan libre dagoen USB ataka batera. Ondoren, jarraitu urrats hauei:

## Ordenagailuan:

1. Ireki "Ordenagailua" leihoa. Telefonoaren memoria-txartela "Disko aldagarria" ikono gisa ageri da.
2. Egin klik "Disko aldagarria" ikonoan, telefonoaren memoria-txarteleko fitxategietara sartzeko.
3. Nahi dituzun fitxategiak memoria-txartelean gordetzeko, arrastatu eta jaregin ondoren adierazi bezala:
   **audio fitxategiak**: > audioa > mugikorra
   **pantaila babesak**: > irudia > mugikorra
   **pantaila hormak**: > irudia > mugikorra
   **bideo klipak**: > bideoa > mugikorra

4 Amaitzean, telefonoa deskonektatzeko, hautatu sistemaren barran (ordenagailuko pantailaren beheko aldean) azaltzen den "Hardwarea segurtasunez erauztea" ikonoa. Ondoren, deskonektatu "USB biltegiratze masiborako gailua".

5 Deskonektatu telefonoaren eta ordenagailuaren kablea.

### Telefonoan:

**Datuak** lehenespenezko USB konexio gisa berriz ezartzeko, sakatu ◆ > **Ezarpenak > Konexioa > USB ezarpenak > Konexio lehenetsia > Datu konexioa**.

## Telefonoko softwarea eguneratzea

Batzuetan, telefonoaren softwarea bizkorrago edo eraginkorrago nola bihur daitekeen pentsatzen dugu. Eguneratzeak bilatu nahi badituzu:

**Joan hona:** ◆ > **Ezarpenak > Softwarea eguneratzea > Eguneratzeak bilatu**

**Oharra**: Softwareen eguneratze horiek Motorolarenak dira eta seguruak dira telefonoarentzat. Softwarearen eguneratzeek ez diete eragiten aurkibideko sarrerei eta beste sarrera pertsonalei.

Zure **operadoreak edo Motorolak** software baten bertsio eguneratua bidaltzen badizu, telefonoak galdetuko dizu berehala **instalatu** nahi duzun edo **geroago** instalatu nahi duzun. Geroago eguneratzea erabaki baduzu eta instalatzeko unea iritsi bada, sakatu ◆ > **Ezarpenak > Eguneratu > Softwarea instalatu**.

Informazio gehiago nahi baduzu, ikus **hellomoto.com/update** gunea.

# Posta elektronikoa eta mezuak

## Testu-mezuak

Talde batentzako posta-zerrenda sortzeko, ikus 69. orrialdea. Mezuei buruzko ezaugarri gehiago ikusteko, ikus 71. orrialdea.

### Testu-mezua bidaltzea

Testu-mezu batek testua eta irudiak, soinuak eta multimedia-objektuak izan ditzake. Mezu batek hainbat orri izan ditzake, eta horietako bakoitzean testua eta multimedia-objektuak sartu. Mezuak telefono bateragarria duten beste erabiltzaileei bidal diezazkiekezu, edo beste helbide elektroniko batzuetara bidali.

> **Mezuak > Sortu mezua > Mezu berria**

1. Sakatu teklatuko teklak orrian testua idazteko (testua idazteko moduei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus 26. orrialdea).

   Orrian **irudi, soinu** edo **bestelako objekturen** bat sartzeko, sakatu **Aukerak > Txertatu.** Hautatu fitxategi-mota eta, gero, fitxategia.

2. Mezua amaitzen duzunean, sakatu **Bidali honi.**

3. Joan hartzaileraino eta sakatu *erdiko tekla*. Egin berriro prozesu berbera beste hartzaile batzuk eransteko.

   Zenbaki edo helbide elektroniko **berri** bat sartzeko, sakatu **Aukerak** tekla eta sakatu **Zenbakia sartu** edo **Helbide elektronikoa sartu.**

3. Mezua **bidaltzeko**, sakatu **Bidali.**

# Testu-mezu bat jasotzea

Mezu bat jasotzen duzunean, telefonoak alerta-tonua jotzen du, eta pantailan **Mezu berria** mezua eta mezuen adierazlea (adibidez, ✉) bistaratzen dira. Sakatu **Irakurri** mezua irekitzeko.

Testu-mezu guztiak ikusteko: ◆ > ✉ **Mezuak > Mezuen sarr. erretilua**

Multimedia-mezu batek multimedia-objektuak baditu:

- Argazkiak, irudiak eta animazioak mezua irakurri ahala bistaratzen dira.
- Soinu-fitxategi bat erreproduzitzen da diapositiba bistaratzen denean. Erabili bolumen-teklak soinuaren bolumena doitzeko.
- Fitxategi erantsiak mezuaren amaieran atxikitzen dira. Atxikitako datuak irekitzeko, joan fitxategiaren adierazlera edo izenera, eta sakatu **Ikusi** (irudia), **Erreproduzitu** (soinua) edo **Ireki** (aurkibideko sarrera, egutegiko sarrera edo fitxategi-mota ezezaguna).

# Telefonoa itxita dagoela mezu bat irakurtzea

Telefonoa itxita dagoenean testu-mezu bat jasotzen baduzu, kanpoko pantailan **Mezu berriak** bistaratuko da.

1. Sakatu ✉ pantaila-tekla mezuen **sarrerako ontzira** sartzeko edo sakatu ↺ jakinarazpenari kasurik ez egiteko.
2. Sakatu ▼ ▲ pantaila-teklak dei batera joateko.
   - Mezu bat **irakurtzeko**, sakatu **Onartu** pantaila-tekla.
   - **Itzuli** nahi baduzu, sakatu funtzio ugariko tekla.
   - **Mezuen pantaila itxi nahi baduzu, luze sakatu** erdiko ukipen-tekla.

**Oharra**: kanpoko pantailan testu-mezu bat irekitzen baduzu, telefonoa ireki dezakezu mezu horri erantzuteko.

# Blogak

Telefonoa erabil dezakezu testua, irudiak, bideoa eta soinua linean partekatutako blogetara eta zerbitzuetara bidaltzeko.

## Blog-kontu bat konfiguratzea

**Oharra**: Telefonotik blog batera konektatzeko, **MMS mezularitza** aktibatuta eduki behar duzu (deitu zure zerbitzu-hornitzaileari xehetasun gehiago edukitzeko). Gainera, **helbide elektroniko batean** (adibidez, go@blog.com edo kode labur batean) **argitaratzeko** aukera emango dizun blog-komunitate bat erabili behar duzu (xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan blog-komunitatearen kudeatzailearekin).

Atalen bat konfiguratua duten edo erabat konfiguratuta dauden **blog-kontuak** izan ditzake telefonoak.

◆ > **Tresnak > WebShare > Blog konfigurazioa > Blog kontuak**

1 Formulario huts bat [**Kontu berria**] edo zatiren bat konfiguratua duten blog-kontuen zerrenda bistaratuko du telefonoak.

- Formulario hutsen bat badago [**Kontu berria**], eman hurrengo pausoa.
- Blog-kontuen zerrenda bat badago, hautatu horietako bat edo hautatu [**Kontu berria**] konfiguratzeko aukera. Blog-kontu batek informazio gehiago eskatzen badu edo zuk [**Kontu berria**] hautatzen baduzu, ikus hurrengo pausoa.

2 Idatzi ondorengo datuak (informazio hori ez baduzu, jarri harremanetan blog-komunitatearekin). **Izena** eta **Kargatu hona** nahitaez bete behar dira:

**Izena**: Kontuari eman nahi diozun izena (adibidez, *NireBloga*).

**Kargatu hona**: Sarrerak argitaratzeko kode laburra edo helbide elektronikoa (adibidez, *go@blog.com* edo *youruserID@blog.com*).

**URL**: sarrerak argitaratu direla esaten duten jakinarazpenetan agertzen da blog-komunitatearen URLa (adibidez, *www.blogservice.com*).

**Jakinarazi honi**: telefono-aurkibideko norbaiti jakinaraz diezaiokezu blogean sarrerak argitaratzen dituzunean, **Jakinarazpena bidali** aktibatuta badago.

**Izenburua**: **Blog automatikoa** aktibatuta dagoenean telefonoak argitalpenetarako erabiltzen duen izenburua.

3 Sakatu **Ados** blog-kontuko xehetasunak gordetzeko.

**Aholkua**: sarrerak beti blog berean argitaratzeko, sartzen zaren aldi bakoitzean hautatu beharrean, sakatu **>** **Tresnak > Web Share > Blog konfigurazioa > Automatki. blogeatu > Aktibatuta**.

# Blog batean argitaratzea

Blog-kontu bat konfiguratu ondoren, sarrerak argitara ditzakezu blog horretan.

**Zuzeneko sarbidea**: argazki edo bideo bat atera ondoren, sakatu **Aukerak > Blogean eseki** bizkor argitaratzeko.

Joan hona: **>** **Tresnak > Web Share > Blog mezu berria**.

1 Idatzi mezuaren testua, edo sakatu **Aukerak > Erantsi**, argazkiak, bideoak edo soinuak eransteko.

2 Sakatu **Eseki** edo **Non eseki** mezu bat argitaratzeko.

# Beste zenbait funtzio

## Dei-funtzio aurreratuak

| Funtzioak |
| --- |
| **Telefono-zenbakia eranstea**<br>Telefono-aurkibideko zenbaki baten eremu-kodea edo aurrezenbakia markatu eta, gero, sakatu **Aukerak > Partekatu>Zenbakia**. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Ohar-bloka**<br>**> Azken deiak**, sakatu **Aukerak**, ondoren, **> Oharretarako koad**<br>• Zenbaki horretara deitzeko, sakatu<br>• **Zk** eremuan agertzen den zenbakiarekin aurkibidean sarrera bat sortzeko, sakatu **Gorde**.<br>• **Markaketa menua** irekitzeko eta zenbaki bat eransteko edo karaktere berezi bat sartzeko, sakatu **Aukerak**. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Nazioarteko deiak**<br>Zure telefono-zerbitzuak nazioarteko markaketa egiteko aukera onartzen badu, luze sakatu 0 tekla nazioarteko aurrezenbakia sartzeko (+ zeinuarekin adierazten da). Gero, teklatuko teklak erabiliz markatu herrialdeko kodea eta telefono-zenbakia. |
| **Dei bat zain uztea**<br>Sakatu **Aukerak > Atxiki** dei aktibo guztiak zain uzteko. |
| **Deiak isiltzea**<br>Sakatu **Mutu** tekla (erabilgarri badago) edo **Aukerak > Mutu** dei aktibo guztiak isilarazteko. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Deia zain**<br>Dei batean, ohartarazpena entzungo duzu bigarren dei bat jasotzen baduzu.<br>Sakatu dei berriari erantzuteko.<br>• Deiak txandakatzeko, sakatu **Aukerak > Deiz aldatu**.<br>• Bi deiak konektatzeko, sakatu **Transferitu**.<br>• Atxikitako deia amaitzeko, sakatu **Aukerak > Dei atxikia bukatu**<br>Zain dagoen deiaren funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu **>** **Ezarpenak > Dei jasoen konfigur. > Deia zain > Aktibatuta** edo **Desaktibatuta**. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Deia konferentzian** <br> Hitz egiten ari zarela: <br> Markatu hurrengo zenbakia, sakatu [key], sakatu **Lotu** |
| **Deia transferitu** <br> Hitz egiten ari zarela: <br> **Aukerak > Transferitu**, markatu deia transferitzeko zenbakia, sakatu ... |

| Funtzioak |
| --- |
| **Deiak automatikoki desbideratzea** <br> Deiak automatikoki desbideratzeko aukera konfiguratzea edo ezeztatzea: <br> · > **Ezarpenak > Dei desbideratzea** <br> Hautatu **Ahots-deiak** edo **Bideo deiak** deiak desbideratzeko edo **Ezeztatu guztiak**, deiak desbideratzeko aukera bertan behera uzteko. <br> Dei bat desbideratu baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezar dezakezu (**5,10, 0,15, 20** edo **25** segundo). |

| Funtzioak |
| --- |
| **Deiak eskuz desbideratzea**<br>Sarrerako deia tekla bakarra sakatuta desbideratzeko aukera ezar dezakezu.<br>Telefonoko deiak desbideratzeko zenbakia definitzeko:<br>> **Ezarpenak > Dei desbideratzea**<br>**> Sakatu desbideratutako zenbakira deitzeko**, eta idatzi telefono-zenbakia.<br>Sarrerako deiak desbideratzeko zer tekla sakatu behar den hautatzeko:<br>> **Ezarpenak > Pertsonalizatu > Hasierako pantaila > Etxeko teklak**, hautatu zerrendako tekla bat, eta, ondoren, hautatu **Sakatu deia desbideratzeko**. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Deiak blokeatzea**<br>Irteerako edo sarrerako deiak mugatzeko:<br>> **Ezarpenak > Segurtasuna > Murriztu deiak** eta, ondoren, idatzi desblokeatzeko kodea (ikus 35. orrialdea).<br>Adierazi telefonoari **Guztia, Bat ere ez** onartzeko edo **Agendako** deiak bakarrik. |
| **Deiak blokeatzea**<br>Dei guztiak, nazioarteko deiak edo inguru pertsonalekoak ez direnak blokeatzeko, mugatu ahots- edo bideo-deiak.<br>> **Ezarpenak > Segurtasuna > Deiak debekatzea** |

| Funtzioak |
| --- |
| **Markaketa finkoa**<br>Markaketa finkoa aktibatzean, markaketa finkoko zerrendan azaltzen diren zenbakietara bakarrik dei dezakezu.<br>Markaketa finkoa aktibatzeko edo desaktibatzeko:<br>**> Ezarpenak > Segurtasuna > Markatze mugatua**<br>Markaketa finkoko zerrenda erabiltzeko:<br>**> Tresnak > Markatze zerbitzuak > Markatze mugatua** |
| **Markatze zerbitzuak**<br>Litekeena da zure operadoreak taxietara edo beste zerbitzu batzuetara deitzeko telefono-zerbitzuak sartzea. Telefono-zerbitzu horiek SIM txartelean daude. Horiek bistaratzeko:<br>**> Tresnak > Markatze zerbitzuak > Zerbitzu-markatzea** |

| Funtzioak |
| --- |
| **Markaketa bizkorra**<br>Programatutako telefonoen zenbakiak markatzeko:<br>**> Tresnak > Markatze zerbitzuak > Markaketa bizkorra** |
| **DTMF tonuak**<br>DTMF tonuak aktibatzeko:<br>**> Ezarpenak > Hasierako konfigur. > DTMF**<br>Dei batean, telefonoak telefono-zenbaki bat bidal dezake sarera, tonu biko multimaiztasuneko tonu gisa (DTMF).<br>Hitz egiten ari zarela DTMF tonuak bidaltzeko, hauxe besterik ez duzu egin behar: zenbaki-teklak sakatu edo aurkibideko edo azken deien zerrendako zenbaki batera joan, eta **Aukerak > bidali tonuak** sakatu. |

# Telefono liburua

Aurkibideko sarrerak gordetzeko eta horietara deitzeko, ikus *Bizkor hasteko gida*.

| Funtzioak |
| --- |
| **Aurkibideko sarrera bati markaketa bizkorreko tekla bat esleitzea** |
| 1-9 teklak eslei diezazkiekezu aurkibideko sarrerei. Hartara, tekla horiek luze sakatuta, dagokion sarrerara deituko du telefonoak. |
| **Oharra**: litekeena da zure operadoreak tekla horietako batzuk esleituak izatea (adibidez, 1 tekla ahots-postarako eta 2 tekla bideo-postarako). |
| Sakatu · > **Telefono-liburua**, eta joan sarrera batera. Ondoren, sakatu **Aukerak > Gehitu markatze laster.**, eta hautatu markaketa bizkorreko tekla bat. |

| Funtzioak |
| --- |
| **Aurkibideko sarrera bati markaketa bizkorreko tekla bat esleitzea** |
| Aurkibideko sarrera bati esleitu diozun **markaketa bizkorreko tekla erabiltzeko**, luze sakatu tekla hori hasierako pantailan. |
| **Markaketa bizkorreko teklak editatzea** |
| · > Telefono-aurkibidea, ondoren, sakatu **Aukerak > Konfigurazioa > Markatze-laster zerrend.** |

| Funtzioak |
| --- |
| **Telefono-aurkibideko sarrera bat aldatzea edo ezabatzea**<br>Telefono-aurkibidean gordetako zenbaki bat aldatzeko:<br>◆ > ☎ **Telefono-aurkibidea**, ondoren, sakatu **Aukerak > Konfigurazioa > Markatze-laster zerrend.**, zoaz aurkibideko sarrera batera eta sakatu **Aukerak. Editatu kontaktua, ezabatu kontaktua** edo beste aukera batzuk hauta ditzakezu.<br>aurkibidean, sakatu tekla numerikoak sarrerari dagozkion lehenbiziko letrak sartzeko. * eta # ere saka ditzakezu, beste kategoria batzuetako sarrerak ikusteko. |

| Funtzioak |
| --- |
